

TRADIZIOTIK ARO MODERNORA

Makina asko erabili behar dira sagardoa ekoizteko, eta Astigarragako Simak enpresa arduratzen da gai horietaz guztietaz

Sagardoaren herria da Astigarraga. Edari horren inguruan hainbat lan sortzen da. Sagardogileez gain, beste jende askok ateratzen du bizimodua aurrera. Negozio txiki ugari ditu inguruan sagardoak. Horietako baten ardura dauka Simak enpresak. Makinak saltzen dizkie sagardogileei; baita kortxoak eta beste hainbat gauza ere.

Aurora Sierra da arduradunetako bat. Aitak ekin zion bideari jarraitzen dio. «Duela 22 urte gaude Astigarragan. Aurretik, aitak Donostian zeukan negozioa, *Inxaurrendon*. Urte asko igaro dira ordutik, eta aldatu egin dute lan egiteko modua. Garai berrietara egokitu beharra daukatela esaten du behin eta berriro Sierrak. «Aita kortxoekin hasi zen, eta gerora ekin genion guk makinek. bezeroek eskatzen zigitelako». Orain, batez ere, bi zeregin dituzte: «Bodegak mantentzeko makinak saltzen dizkiegu, eta baita kortxoak ere».

Aldaketak etengabeak direla dio, eta horietako bat kortxoena da: «Plastikozko tapoiak jarri nahi dizkiete orain». Ez du oso ondo ulertzen zergatia: «Birziklatzea».

«Egurrezko upelei bakterio bat sartzen zitzaion barruan, eta ez zegoen handik ateratzerik»

• AURORA SIERRA
Simak enpresako arduraduna

ren garaian eta gauza naturalen aroan, kortxoak bezalako gauza naturalak baztertua ez da logikoa. Itxuraz, batzuentzat ez da izango hain naturala». Baina negozioa negozioa denez, aldaketak onartu egin beharko dituzte, asko kostatzen bazaie ere: «Egia esateko, zaila egiten ari zaigu. Baina kortxoak ez badugu saltzen, zerbait egin beharko dugu. Dena dela, oraingoz behintzat, kortxoarekin segituko dugu».

Egurretik altzairura

Simak enpresaren beste oinarria makinak dira. Upategiak mantentzekoak, batez ere. Horretan ere asko aldatu dira ohiturak. Kupeletan ere beste horrenbeste. Materiale-tik hasita. «Lehen egurrezkoak izaten ziren, eta orain altzairuzkoak, herdoiltzen ez den horietakoa». Baina egurrezkoak arazo handi bat izaten zuten: «Bakterio bat sartzen zitzaion barruan, eta ez zegoen handik ateratzerik, ezta sekulako garbiketa eginda ere». Garbitzeko modua ere aldatu egin dela dio: «Lehen, barruan sartzen ziren, baina orain, salbuespenak salbuespen, ez».

Upategiak ere gero eta handiagoak dira, eta «gehiago handitzeko adoretu gaude», esan du Sierrak. Garbitzeko garaian, teknika aldatu egin da lehenetik hona: «Asko, gainera. Orain, garbitzeko materialek biodegradagarriak izan behar dute». Adibide zehatza jarri du ildo horri jarraituz: «Lehen, kupe-lak zeboarekin, gantzarekin betetzen zituzten, baina orain ez diete uzten».



MAKINAK. Sagardogintzak aurrera egin du, eta makinak erabiltzeak lagundu du. BERRIA

Aldaketa asko teknologia berri-kuntzek ekarri dituzte, baina beste asko ingurumena zaintzeko legeek: «Gero eta zorrotzagoak dira. Salmenta bakoitzean ondo bete behar dira fitxa teknikoak». Beste adibide zehatz batekin azaldu du: «Duela urte batzuk, botilak garbitzeko lekua egin nahi genuen, baina ez ziguten utzi, ingurumena zaintzearen».

Aldaketak aldaketa, lan faltarik ez daukate. Sagardotegiak irekita dauden garaian egiten dute lan gutxien, eta itxita direnean gehien, «uztailean eta abuztuan».

makinak aldatzen dituztenek garai horretan aldatzen dituztela-ko». Baina salmenta ondorengo zerbitzua ondo zaindu behar dela dio: «Oso-oso garrantzitsua da. Gu une oro gaude bezeroei arreta emateko prest. Larunbat gauean etortzen bazaizkigu kortxo eske,

eman egiten diegu», kontatu du Sierrak. Etorkizunera begira, aldaketa gehiago iragartzen ditu, «legeak ezarritakoak». Baina aitortzen du penaz bizi dituela aldaketak: «Artisautza galtzen ari da, eta ni hemengo ohituren oso zalea naiz».

Mina
SAGARDOTEGIA

Inaxio
Ollokiegi
Zubillaga

Txoritokieta p.
Tel.: 943 55 52 20
20115 ASTIGARRAGA

Sagardo botila
urte osoan salgai

LARRE-GAIN
Tolare - Sagardotegia

© 943-55 58 46 - 616-28 78 67

Ikabel Santa Kruz Zeraín
LARRE-GAIN BASERRIA • ERENOTZU • HERNANI

LIZEAGA

LIZEAGA
Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa !
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu askoz hobe.

**EDAN ETA EMAN
EDATERA**